

Zerbitzu batek 60 Estatutako 180 egunkari kontsultatzeko aukera ematen du Bilbon

Liburutegiak eskaintzen duen zerbitzu berriak etorkinentzako baliagarria izan daiteke, jaioterriarekin harremanetan izateko, baina baita atzerriko hizkuntza ikasi nahi duten erabiltzaileentzako ere.

Bilboko San Frantziskoko Liburutegiak zerbitzu berri bat jarri du abian eguneko egunkariak kontsultatzeko. 'Munduko Egunkariak' izena du egitasmoak eta 60 Estatutako 180 egunkari ezberdin ikusteko aukera ematen die erabiltzaileei, Bilboko Udalak jakitera eman duenez.

Euskal Kultura Planak babestutako kultura aniztasuna eta liburutegiak proiektuaren barnean kokatzen da ekimena. Egitasmoan Eusko Jaurlaritzak eta beste erakunde batzuk parte hartzen dute, besteak beste, Bilboko Udalak, etorkin taldeen gizarte-integrazioa bultzatzeko.

Nazioarteko prentsa eskura jartzen duen doako zerbitzua da, harpidetza egiteko beharrik gabe. Gainera, "malgutasun osoz" ekiteko aukera ematen dio zerbitzuak liburutegiari.

Etorkinak eta beste erabiltzaile batzuk

Zerbitzu berriak etorkinentzako baliagarria izan daiteke, jaioterriarekin harremanetan izateko, baina baita atzerriko hizkuntza edo kultura bat ikasi nahi duten erabiltzaileentzako ere.

Internet bidez funtzionatzen duen software bati esker egunkaria aukeratzeko, deskargatzeko eta inprimatzeko aukera ematen du programak.

Deskarga eta inprimaketa liburutegiko langileek egingo dute eta eskaerak momentuan artatuko dituzte, beti ere eskariaren arabera.